

SAGARDOA

Profesionalei zuzendutako saioak egingo dira gaur Oronan, III. Sagardo Forumari hasiera emateko

Kronika - Erredakzioa 2019-11-21 00:05



Nazioarteko Sagardo Lehiaketaren bigarren edizioa asteburuan egingo da, eta Nazioarteko Azoka ere bai, aurrenekoz; horiek, Kursaal.

Mundu osoko sagardogile adituak batuko ditu gaur Hernaniko Orona Ideo eraikinean hasiko den III. Sagardo Forumak. Publiko orokorrari irekitako ekitaldiak ere izango ditu, ordea.

Sagarra, turismoa eta sagardoa munduan, aztergai

Sagardoaren Lurraldeak Hernani eta Astigarragako Udalekin, Aldundiarekin eta Jaurlaritzako Hazi erakundearekin elkarlanean antolatutako Forum honetako aurreneko bi jardunaldiak sektoreko profesionalei bideratuak izango dira. Gaur eta bihar, Orona Ideon goizetik eguerdira ariko dira, sagarraren, sagardoaren turismoaren eta munduan dibertsifikatuta dagoen sagardoaren inguruan. Horrez gain, bisita gidatuak egiteko aukera ere prestatu dute, atzerriko ekoizleei bertako aukeren berri emateko, batez ere. Chillida Leku, Albaola edota Sagardoetxea bisitatu, eta afari tematiko batean parte hartu ahal izango dute Basque Culinary Centerren. Izen-emate eta akreditazioak www.sagardoforum.eus webgunean egin behar dira.

Herritarren artean zozketa, Sagardo Azokarako

Publiko orokorrari irekita, berriz, Nazioarteko Sagardo Azoka egingo da igandean Donostiako Kursaal, eta sagardoak dastatu ahal izango dira: apardunak, izotzezkoak, lupuludunak... Sarrerak 10 euroan daude salgai, sagardoforum.eus webgunean.

Dena den, Astigarragako Udalak azokarako sarrerak zozketatuko ditu. Parte hartzeko, gaur 12:00ak baino lehen idatzi behar da alkatetza@astigarraga.eus helbide elektronikora.

Azokaz gain, bigarrenez, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa ere egingo da, Kursaal, larunbatean hasita. Sariak astelehenean banatuko dituzte.

[Gizartea Astigarraga Hernani](#)

Erantzun ▼

Bi hilabeterako programa berezia osatu

Odol emaileek zita, bihar arratsaldean

Euskeraren Eguna da bihar, ospakizun eguna

Asteburuko partiduak



Ikusienak



[Minutu gutxi falta ziren arte, balentriarako esperantza](#)

Kronika - Erredakzioa

abe 01, 00:00

[Hernani](#)



[300 deskontubono gaurtik, ia 70 dendatan](#)

Kronika - Erredakzioa

abe 02, 00:00

[Hernani](#)



[Ibai Parkearen inaugurazioa](#)

Kronika - Erredakzioa

aza 29 [Astigarraga](#)



[Herritarrei ofizialki irekia, Ibai Parkea](#)

Kronika - Erredakzioa

aza 30 [Astigarraga](#)



[Izenematea zabalik bihar, kiroldegiko ikastaroetan](#)

Kronika - Erredakzioa

abe 01, 00:00

[Hernani](#)



[Odol emaleek zita, bihar arratsaldean](#)

Kronika - Erredakzioa

abe 02, 00:00

[Hernani](#)

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]@kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)